

LAGINAREN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2018/2019

Lehen Hezkuntzako 6.a

Amaierako txostena
2019ko uztaila

EBALUAZIO ETA KALITATE ATALA

AURKIBIDEA

1. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa	3
2. Ebaluazioaren oinarrizko datuak	4
2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa.....	4
2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak	4
3. Neurgailuen deskribapena	6
3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	6
3.2. Gaitasunak neurtzeko probak	6
4. Emaiza globalak	10
4.1. Batez besteko puntuazioak	10
4.2. Gaitasunen arabera errendimendu mailak	12
5. Zenbait aldagairen arabera emaitzak	14
5.1. Generoa	15
5.2. Ikasmaita errepikatzea	16
5.3. Eskolatze goiztiarra	17
5.4. Ikaslearen jatorria	18
5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)	19
5.6. Ikastetxearen titulartasuna	21
5.7. Eskola-absentismoa	25
5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo	26
5.9. Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean	27
5.10. Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako	28
6. Eranskinak	30
1. ERANSKINA Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak	30
2. ERANSKINA Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	31
3. ERANSKINA Gaitasun bakoitzeko probetako galderen ezaugarriak	35
4. ERANSKINA Errendimendu mailen zenbakizko zehaztapena eta deskribapen kualitatiboa ..	39

1. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa

Hezkuntza Departamentuak ezarri du laginaren ebaluazio diagnostikoa egitea Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei, *Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegirako presazko neurriei buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuak* xedatzen duenari jarraikiz. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Lagin baten gainean egina da (ikastetxeen eta ikasleen laginen hautaketa behar adinakoa izanen da datu esanguratsuak lortzeko).
- Xedea da Nafarroako hezkuntza sistemaren diagnostikoa egitea.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa da.
- Parte hartu duen ikastetxe bakoitzari ebaluaturiko ikasleen emaitzekin izengabeko zerrenda helarazten zaio.

Ebaluazioan landu dira (gaztelania edo euskara) irakas-hizkuntzetako irakurmena, ingelesezko hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta zientzia gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, behar bezainbateko eskarmentu profesionala duten maisu/maistrek, Nafarroako ikastetxeetan zerbitzu egiten ari direnek, taldeka egindako lanetik abiatuta. Proba horiek ikasleen bizitzatik hurbil dauden inguruneen gainekoak dira, barne direla bai egoera pertsonalak bai familia, eskola edo gizarte mailakoak, bai zientifikoak edo humanistikoak. Ikasleek betetako testuinguruko galde-sortek—aukera ematen dute hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturalen gaineko argibideak lortzeko, eskuratutako emaitzak testuinguru batean kokatu ahal izateko.

Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioaren proben aplikazioa Nafarroako Foru Komunitateko maisu/maistren kidegoko langileek burutu dute; beraiek arduratu dira egindako proba guztiak aplikatzeaz, zuzentzeaz eta kodetzeaz. Beraz, ebaluazio prozesua ikastetxeetatik kanpo egin da guztiz.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen amaierako ebaluazioaren emaitza orokorrak aurkezten dira txosten honetan; hura 2018-2019 ikasturtean egin zen, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen lagin batean, eta argibideak eman ditu, bai ebaluaturiko gaitasunen gaineko errendimenduari buruz, bai emaitza horiek testuinguru batean kokatzen dituzten hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturei buruz.

2. Ebaluazioaren oinarrizko datuak

2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa

Ebaluazio eta Kalitate Atalak egin du ikastetxeen eta ikasleen laginaren hautaketa, eta behar adinakoa da Nafarroaren gaineko datu esanguratsuak lortzeko. Ausazko laginketa baten bidez egin zen, bi etapatan (bietapikoa):

- Lehen etapan ikastetxeak hautatu ziren bi geruza ezarririk haien titulartasunaren arabera (publikoak eta itunduak) eta ikastetxearen tamainaren arabera ausazko hautaketa sistematikoa erabiliz horretarako. Etapa honetan, kanpoan gelditzen dira azterketaren xede den hezkuntza mailan 3 ikasle edo gutxiago dituzten ikastetxeak. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda txosten honen 1. ERANSKINEAN agertzen da.
- Bigarren etapan, ikastetxe bakoitzeko ikasleak hautatu ziren, ausazko hautaketa soila eta generoaren arabera geruzatua erabiliz horretarako. Ikastetxe bakoitzean gehienez ere hautaturiko ikasle kopurua 30 da; kopurua gutxiago izan denean ikasle guztiak ebaluatu dira.

Beraz, Nafarroan egindako laginketak datu esanguratsuak eskaintzen ditu ikastetxearen titulartasunaren arabera, baina ez du hizkuntza ereduaren arabera datu esanguratsurik ateratzeko aukerarik ematen.

Ikerketatik kanpo gelditu ez diren ikastetxeetako matrikula datuen arabera (Educan erregistratuak, 2019ko urtarilaren 29an), abiapuntua da 6911 ikasleko populazioa; haietatik, 2541 ikastetxe itunduetan ari dira eta 4370 ikastetxe publikoetan. Hortik abiatuta, abiapuntuko laginketa hau atera zen (Lehen Hezkuntzako 6.eko matrikularen %20,5):

Titulartasuna	Ikastetxe kopurua	Ikasle kopurua
Itundua	19	552
Publikoa	31	865
Guztira	50	1417

2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak

Ebaluazio orotan bezala, gerta daiteke ikasle batzuek ezintasuna izatea probak baldintza egokietan egiteko. Hori dela kausa, probetatik salbuesteko lau arrazoi ezarri ziren:

- Gaztelania edo, hala badagokio, euskara, ez ezagutzea, hasiberria izateagatik gure hezkuntza sisteman (urtebete baino gutxiago).
- Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (beso hautsia edo igeltsatua, ikusmen urria, atzerriko egonaldia,...).
- Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailako ikasleak, errekupeazio planetan ari direnak Lehen Hezkuntzako 4.eko edo beheragoko Matematika eta Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, Educa kudeaketa-programan erregistratuak eta curriculum-egokitzapen esanguratsuak (CEE) dituztenak.

Irizpide horiek aplikatuta, 10 ikasle salbuetsi ziren (1 ikastetxe itunduetan eta 9 publikoetan); beraz, azken laginketan 1407 ikasle gelditu ziren ebaluatzeko gai. (Oharra: 30 ikasle baino gehiago zuten ikastetxeetan, salbuetsitako ikasleak, ebaluatu ezinak izanik, hasierako laginean ez hautagarritzat jo ziren).

Aplikazioaren fasea 2019ko maiatzaren 14etik 31ra bitarte burutu zen, ikastetxe bakoitzera bi egunez joanez; hartan, 84 kasu erregistratu ziren informazio osorik gabe, bi arrazoi zirela-eta:

- 32 ikasle ez ziren ez egun batean ez bestean etorri (19 ikastetxe itunduetan eta 13 ikastetxe publikoetan) eta, protokoloari jarraikiz, jada ez zuten proba beste noizbait egin.
- 52 ikasle ez ziren egun batean etorri (16 ikastetxe itunduetan eta 36 ikastetxe publikoetan), eta ezin izan zituzten proba guztiak egin.

Txosten honetan agertzen diren emaitza orokorretan (estatistikoak) kontuan hartu dira probei osorik erantzun zieten 1323 ikasle salbuetsi gabeen datuak; horietarik, 516 ikastetxe itunduetan ari dira eta 807 ikastetxe publikoetan. Jaitsiera horrek planifikatuaren aldean lortu gabeko %6,63ko ehunekoa dakar [% 0,71 salbuetsita zeudelako eta % 5,93 ez zirelako guztiz ebaluatu].

Ikuspuntu estatistikotik:

- Amaierako laginketa (1323 ikasle aztertutik) Lehen Hezkuntzako 6. mailako matrikularen %19,14 da; beraz, Nafarroako hezkuntza sistemako maila horretako lagin adierazgarria da.
- Kontuan harturik laginketaren diseinua, azterketak egiteko tenorean ikasle horietariko bakoitzari bere "laginketa-pisua" (haztapena) esleitu zitzaion, erran nahi baita, lagineko ikasle horrek populazioko zenbat ikasle ordezkatzeko duen adierazten duen balioa.

Azkenik, oroitarazi beharra dago aplikazio prozesuak iraun bitartean ondotik adierazten diren egokitzapen neurriak hartu zirela hezkuntza premiak dituzten ikasleendako, ikastetxeek jakinarazitako eskakizunei jarraikiz:

- Denbora luzatzea (luzeenak dira probak egiteko denborak).
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Ingurugiro egokia (argiztapena, akustika ...)
- Letra tamaina handitzea.
- Egiaztatzea ikasleak ulertu dituela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, bestela, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Ahalegina sendotzea eta ziztatzea, ikaslea lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, proba entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratzuz.

3. Neurgailuen deskribapena

3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia

Ebaluazioa egiten den aldi berean Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia aplikatu zen (paperean). *Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioaren testuinguruari buruko galdetegiak eta adierazle komunak definitzen dituen Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Estatu Idazkaritzaren 2016ko martxoaren 30eko Ebazpenaren* I. eranskina hartzen du galdetegi horrek erreferentziatako. Ebazpen horren bidez definitu egiten dira Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluaziorako testuinguruko galdetegiak eta ikastetxeko adierazle komunak. Galdetegia osatzen duten 15 galderak ikus daitezke txosten honen 2. ERANSKINEAN.

Galdetegi horri erantzunda ikasleek halako informazio bat ematen dute eta horretatik abiatu aurretik aldagai batzuk eraiki dira, ikasleen errendimenduaren gainean zer faktorek duten eragina aztertzeko. Informazio hori osatzeko eta alderatzeko erabili dira eskola kudeaketarako Educa programan (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren sistema informatikoa) erregistraturiko datuak.

3.2. Gaitasunak neurtzeko probak

Ebaluazioa ardaztu da lau gaitasunen errendimenduaren azterketan: gaztelaniazko edo euskarazko irakurmen gaitasuna, ingelesezko hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta zientzia gaitasuna.

Gaitasun bakoitzak ebaluatzeko proba berariazkoa du. Guztiak Ebaluazio eta Kalitate Atalaren webgunean aurkitzen dira, bakoitza zuzentzeko koadernoekin batera:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra>

Hona hemen **proba guztien ezaugarri komunitariko batzuk**:

- Bakoitza egiteko 60 minutu ematen da gehienez.
- Paperezko formatuan aplikatzen dira.
- Ingelesezko proba kenduta, aplikazio hizkuntza eskolako ikasketetako da, erran nahi baita, gaztelania A/G hizkuntza eredu ikasleentzat, eta euskara B/D hizkuntza eredu ikasleentzat.
- Galderak gaitasunen ingurukoak dira eta zerikusia dute Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumari dagozkion eduki-blokeekin (60/2014 Foru Dekretua).
- Galdera gehienak aukera anitzekoak dira, nahiz eta badauden galdera erdi irekiak eta irekiak.

Banan-banan, hona hemen **proba bakoitzaren ezaugarri berariazkoak**:

- (1) Gaztelaniazko edo euskarazko irakurmen gaitasuna neurtzeko proba: 4 testuren gaineko 27 galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 29 izanik.
- (2) Ingeleseko hizkuntza gaitasuna neurtzeko proba:
 - Guztira, 31 galdera ditu, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 45 izanik.
 - Hiru zati ditu: entzute ariketa (*listening*), bitan errepikatzen dena, idatziaren ulermenerako 2 testu (*reading*) eta idazmen proba laburra (*writing*).
 - Hizkuntza trebetasun hauek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Haren pisua puntuazio osoan
<i>Listening-a</i>	10	%22
<i>Reading-a</i>	20	%45
<i>Writing-a</i>	15	%33
GUZTIRA	45	%100

- (3) Matematika gaitasuna neurtzeko proba: 2 egoeren gaineko 20 galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 22 izanik.
- (4) Zientzia gaitasuna neurtzeko proba: 4 egoeren gaineko 39 galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 47 izanik.

Gainera, txosten honen 3. ERANSKINEAN proba bakoitzerako argibide taula agertzen da, zeinean deskribatzen baitira **galdera bakoitzaren ondoko ezaugarriak**:

- *Tipologia*: erdi irekia/irekia edo itxia (aukera anitzekoa).
- *Erantzun zuzena* (bakarrik itxia bada).
- *Esleitutako gehieneko puntuazioa*.
- *Zailtasun indizea*: galdera bakoitzak zailtasun maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera (erantzun zuzenen ehunekoa).
- *Diskriminazio indizea*: galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Azkenik, ebaluazio proban egindako galderen konplexutasun handiagoan edo txikiagoan oinarriturik, baita ikasleek emandako erantzunen zuzentasun mailan oinarriturik ere, identifika daitezke **gaitasunen arabera lau errendimendu maila**. Errendimendu mailak dira ebaluaturiko gaitasun probetan ikasle batek frogatutako ezagutza, trebetasun eta jarreraren deskribapena; labur esanda, ikasleek *egiten dakitena*.

Orokorrean, ebaluatutako gaitasunen garapen gradua 4 mailatan banatzen da:

- **1. maila.** Gaitasuna eskuratzeko maila apalenari dagokio.
- **2. maila.** Hura deskribatzeko “gaitasunaren garapen partziala” erabiltzen da, eta hemen daude ikasteko oinarritzko tresnak dituzten ikasleak, baina, zenbaitetan aski ez direnez, halako inguruabar batzuetan emaitzak positiboak dira eta bestetan ez.
- **3. maila.** Modu honetan identifikatzen diren ikasleek errendimendu onak izan ohi dituzte eta ikaskuntzei modu autonomoan heltzeko behar diren baliabideak.
- **3+. maila.** Ikasteko zailtasunik ez duten ikasleei dagokie. Gaitasuna eskuratzeko goren gradua irudikatzen dute.

1. mailak *atzean gelditu diren* ikasleak irudikatzen ditu; 1. eta 2. mailek, batera, *gaitasun maila egokira heltzen ez diren* ikasleak irudikatzen dituzte; 3. eta 3+. mailek, batera, *gaitasun maila egokira heltzen diren* ikasleak irudikatzen dituzte, eta 3+. mailak *bikaintasuna irudikatzen du*.

Gaitasun horiek noraino eskuratu diren modu kualitatiboan azaltzen da txosten honen 4. ERANSKINEAN. Errendimendu maila bakoitzaren deskribapenean, probak egin dituzten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek zer erakutsi duten egiten dakitenaz azaltzen da. Informazio kualitatibo horren osagarri, informazio kuantitatiboa ere ematen da, puntuazioen bidez: eten puntu izenekoak dira; bakoitzak adierazten du halako maila batean kokaturiko ikasle batek lortu duen gutxieneko eta gehieneko puntuazioa. Informazio hori guztia, aurkezten den horretantxe, inklusiboa da, erran nahi baita, gaitasun edo trebetasun bakoitzean maila bakoitzerako garatutako ikaskuntzek lehenagoko maila guztietakoak ere berenganatzen dituztela; hartara, ikasle bat halako maila batean kokaturik dagoenean, esan daiteke gai dela bertako trebetasunetan eta beheragoko mailetakoen ere bai.

4. Emaidza orokorrak

4.1. Batez besteko puntuazioak

Ondoko laukian agertzen dira Nafarroako LHko 6. mailako ikasleek lortutako puntuazioen estatistika nagusiak, ebaluaturiko gaitasun bakoitzean:

Estatistika	Gaitasuna			
	Irakurmena gaitasuna (gaztelaniaz edo euskaraz)	Hizkuntza gaitasuna ingelesez	Matematika gaitasuna	Zientzia gaitasuna
Gutxienekoa	4	4	0	5
Gehienekoa	29	45	22	47
Batez bestekoa	19,0810	28,4392	10,3508	27,1196
Desb. tipikoa	5,1872	8,6691	4,1543	6,2222
Barreiadura erlatiboa (Pearson-en BK)	0,27	0,30	0,40	0,23
Asimetria	-0,2884	-0,3280	0,2473	-0,0886
Kurtosia	-0,5680	-0,6048	-0,4783	-0,3356





Alderdi azpimarragarriak:

- Nafarroako batez besteko puntuazio orokorrak honako hauek dira:
 - 19,1 puntu irakurmena gaitasunean (gehienez 29 izanik posible)
 - 28,4 puntu ingelesezko hizkuntza gaitasunean (gehienez 43 izanik posible)
 - 10,4 puntu matematika gaitasunean (gehienez 29 izanik posible)
 - 27,1 puntu zientzia gaitasunean (gehienez 45 izanik posible)

Gisa hartara, emaitza hoberenak ordena honetan eskuratzen dira: lehenik, irakurmena gaitasuna; bigarrenaz, ingelesezko gaitasuna; hirugarrena, zientzia gaitasuna, eta laugarrenaz, matematika gaitasuna.

Matematika gaitasunean eskuratutako batez bestekoak hobetzeko eginkizuna agertzen du hurrengo ikasturteetarako.

- Ebaluatu diren ikasleen artean, bakar batek ere ez du puntuazio handiena eskuratu zientzia gaitasuneko proban.
- Irakurmena, ingelesezko hizkuntza eta zientzia gaitasunetan, barreriadura erlatiboak adierazten du banakako puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean. Matematika gaitasunaren kasuan aldakortasuna neurritzkoa da.
- Asimetria eta kurtosi koefizienteek zeroa hurbil dute, eta horrek adierazten du eskuratutako puntuazioen banaketa banaketa normalaren itxuraren antzekoa dela (Gauss-en kanpaia). Hurrengo orrialdeak agertzen dira banaketa horien grafikoak.



4.2. Gaitasunen arabera errendimendu mailak

3.2 atalean adierazi bezala, Emaitzak lau errendimendu mailatan banatu dira (1. maila, 2. maila, 3. maila eta 3+. maila), ebaluatutako gaitasunen garapen graduaren berri emateko.


Hurrengo orrialdeko laukian eta grafikoan agertzen da ikasleen banaketa, gaitasun guztietan lortutako mailaren arabera. Ohartemateko moduko kontuak:

- Zientzia gaitasunean hamar ikasletik zazpi baino gehixeago (%71) iristen da gaitasun maila egokira; irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz edo euskaraz), ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta matematika gaitasunean, berriz, kopuruak ia-ia hirutik laura egiten du gora (%73 edo %74). Beraz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako nafar ikasleen soslaiak errendimendu ona du lau gaitasunetan.
- Lau gaitasunetan (irakurmena, ingelesezko hizkuntza, matematika eta zientzia), bederatzi ikasletik bat inguruk (%11) neurri bereziak behar ditu maila apalenean egoteagatik (N1).
- Atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (N1 maila apalenean daudenak) ingelesezko hizkuntza gaitasunean (%10,3) eta zientzia gaitasunean (%11,7) txikiagoa da ikasle bikainen ehunekoa (N3+ maila gorenean daudenak) baino gaitasun berberetan: ingelesezko hizkuntza (%11,9) eta zientzia (%12,1).

Matematika gaitasunean, atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (%12,2) handixeagoa da ikasle bikainena baino (%8,4).

Alde horiek guztiak ez dira adierazgarriak estatistikoki begiratuta; horrek agerian jartzen du Nafarroako hezkuntza sisteman dagoen ekitatea, baina aldi berean eginkizun uzten du matematika gaitasunean hobetu beharra hurrengo ikasturteetarako.

Ikasleen ehunekoa Nafarroan	Gaitasuna			
	Irakurmen gaitasuna (gaztelaniaz edo euskaraz)	Hizkuntza gaitasuna ingelesez	Matematika gaitasuna	Zientzia gaitasuna
1. maila (atzean gelditu direnak)	%11,7	%10,3	%12,2	%11,7
2. maila	%14,1	%15,9	%14,0	%17,1
3. maila	%62,8	%61,9	%65,4	%59,1
3.+ maila (bikainak)	%11,5	%11,9	%8,4	%12,1
Gaitasun maila egokia lortzen duten ikasleak (N3 eta N3+ mailak)	%74,3	%73,8	%73,8	%71,2
Gaitasun maila egokia lortzen ez duten ikasleak (N1 eta N2 mailak)	%25,7	%26,2	%26,2	%28,8



5. Zenbait aldagairen arabera emaitzak


Ikasleen errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute, hala ikastetxeari loturiko ezaugarriak nola ikaslearenak berak eta haren ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalari dagozkionak.

Ondoren, ebaluatutako gaitasunen emaitzei loturik dauden zenbait faktore jorratzen dira. Ebaluatutako lau gaitasunetan faktore horiek duten eragina aztertzen da.

Alderaketa horiek egiteko, batez besteko puntuazio **eraldatua** erabiltzen da, hau da, puntuazio zuzena eskala jarraitu batera ekartzean gelditzen dena, eskala horren batez bestekoa 500 puntukoa denean (Nafarroan ebaluatutako ikasle guztien batez besteko puntuazioa) eta desbideratze tipikoa, berriz, 100 puntukoa. Eskala horrek errazten du talde eta gaitasunen arteko alderaketa. Desbideratze tipikoa 100 izateak esan nahi du ikasleen bi herenek, nonbait hor, 400dik 600era bitarteko puntuazioa dutela, eta %95ek, nonbait hor, 300dik 700era bitartekoa.

Ikuspegi kuantitatibo batetik, desbideratze tipikoaren irizpidea ere erabil daiteke, gaitasun jakin batean lortutako batez besteko puntuazioaren eta Nafarroako batez bestekoaren artean dagoen aldearen garrantzia baloratzeko. Adibidez, Nafarroako desbideratze tipikoa erreferentzia gisa harturik:

- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa bada, arintzat har daiteke (25 puntu baino gutxiago, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 eta 1/3 artekoa bada, moderatutzat har daiteke (25 eta 33 puntu artean, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/3 baino handiagoa bada, orduan bai, handitzat har daiteke (33 puntu baino gehiago, 500eko eskalan).



Hona eraldatze hori lortzeko formula, gaitasun bakoitzaren balio berariazkoak erabiliz:

$$\text{Punt.Eraldatua} = 500 + 100 \times \left(\frac{\text{PuntZuzen} - \text{BatezBestekoa}_{\text{Nafarroa}}}{\text{DesbTip}_{\text{Nafarroa}}} \right)$$

Atal honetan faktore hauek aztertzen dira:

- Generoa
- Ikasmaita errepikatzea
- Eskolatzeko goiztiarra
- Ikaslearen jatorria
- Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)
- Ikastetxearen titulartasuna
- Eskola-absentismoa
- Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo
- Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean
- Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako

Aldagai horiek errendimenduaren gainean duten eraginaren interpretazioa egiteko tenorean, kontuan hartzeko gauza da azkeneko lauak ikasleen iritziz subjektiboan oinarriturik daudela.


5.1. Generoa

Nafarroan, ikasleen banaketa orekatua dago, generoaren arabera, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean, izan ere, %49 emakumezkoak dira eta %51 gizonezkoak.


Emakumezkoen batez besteko emaitzak nabarmen hobeak dira Irakurmena (gaztelaniaz edo euskaraz) gaitasunean eta ingelesezko hizkuntza gaitasunean. Aldea are handiagoa da irakurmena gaitasunean (gaztelaniaz edo euskaraz) (30 puntu) eta ondoren ingelesezko hizkuntza gaitasunean (28 puntu).

Gizonezkoen emaitzak nabarmen hobeak dira matematika gaitasunean (aldea 17 puntukoa izanik). Ez dago generoaren araberako desberdintasun nabarmenik zientzia gaitasunaren batez bestekoen artean.

Hurrengo ikasturteetan, Nafarroako hezkuntzaren eginkizunetarikoa izanen da generoen arteko berdintasun handiago bat lortzea, matematikaren alderako interesa sustatuz emakumezkoen artean, eta ingelesaren eta irakurmenaren alderakoa, gizonezkoen artean.



Batez besteko puntuazio eraldatuak, generoaren arabera




5.2. Ikasmaita errepikatzea

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %9k ikasturteren bat errepikatu du.

Errepikatzaileen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, errepikatu ez dutenen aldean. Gainera, gaitasun guztietan errepikatzaileen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).


Errepikatu dutenen eta ez dutenen arteko aldea handiagoa da ingelesezko hizkuntza gaitasunean (102 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, matematika gaitasunean (77 puntu), zientzia gaitasunean (76 puntu) eta irakurmena gaitasunean gaztelaniaz edo euskaraz (76 puntu).




5.3. Eskolatze goiztiarra

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %72 goiz eskolatu zen, erran nahi baita, 3 urte baino gutxiago zituela. Goiz eskolaturiko ikasleen emaitzak nabarmen hobeak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, goiz eskolatu ez diren ikasleen aldean. Hala ere, goiz eskolaturiko ikasleen batez besteko puntuazioak pixka bat baizik ez dira Nafarroako batezbestekoa baino hobeak (500dik 525 puntura bitarteko balioak).

Goiz eskolatu direnen eta ez direnen arteko aldea handiagoa da ingelesezko hizkuntza gaitasunean (32 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, matematika gaitasunean (21 puntu), irakurmena gaitasunean gaztelaniaz edo euskaraz (18 puntu) eta zientzia gaitasunean (16 puntu).



Batez besteko puntuazio eraldatuak, eskolatze goiztiarraren arabera




5.4. Ikaslearen jatorria


Gizarte globalizatuetan, etorkin izaera gero eta nahasiagoa da. Ikasle etorkinen definiziotako hau hartu dugu: Espainian jaio ez direnak eta gainera, gutxienez, aita bat edo ama bat estatu honetan jaio gabeak dituztenak. Hartara, Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %7 etorkinak dira, eta %93 bertakoak.

Etorkinen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, bertakoen aldean. Gainera, ingelesezko hizkuntza eta matematika gaitasunetan, etorkinen batez besteko puntuazioak guztiz apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak), irakurmena eta zientzia gaitasunetan, berriz, batez besteko puntuazioak apalagoak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467tik 475 puntura bitarteko balioak).

Etorkinen eta bertakoen arteko aldea handiagoa da ingelesezko hizkuntza gaitasunean (80 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, zientzia gaitasunean (58 puntu), matematika gaitasunean (53 puntu) eta irakurmen gaitasunean (43 puntu).




Batez besteko puntuazio eraldatuak, ikaslearen jatorriaren arabera



5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)

Familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren eta ikasleen errendimenduaren arteko erlazioak hezkuntza sistemen ekitatea neurtzeko balio duela uste ohi da, izan ere haien arteko erlazioa txikiagoa izateak esan nahi dezake sistema horiek hezkuntza errendimenduan neurri txikiagoan birsortzen ari direla ikasleen gizarte eta familia ingurunean dauden aldeak.

Ikasleen gizarte eta familia jatorriaren alderdi batzuk neurtzeko eraiki da Indize sozioekonomiko eta kulturala (banakako ISEK); haren bidez islatzen da gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila, baita etxean eskura dituzten baliabideak, hala nola liburuak edo gailu digitalak. Kontuan harturik banakako ISEK, ikasleak lau “ISEK mailatan” banatzen dira, banakako ISEKren maiztasunen banaketaren kuartilak elkarrengandik bereizten dituzten hiru atalen arabera. Hona zein diren maila horiek: “Apala”, “Apal-Ertaina”, “Ertain-Handia” eta “Handia”; horietako bakoitzean ikasleen %25 sartzen da, nonbait hor (ikus beheko grafikoa).




Hurrengo orrialdeko grafikoa hau ikusten da:

- Emaizta ertainetan hobekuntzarako joera garbia dago banakako ISEK maila handitu ahalean.
- Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean, ISEK maila “apala” dutenen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan. Gainera, irakurmena gaitasunean (gaztelaniaz edo euskaraz) eta ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ISEK “apaleko” ikasleen batez besteko puntuazioak apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467tik 475 puntura bitarteko balioak); matematika eta zientzia gaitasunetan, berriz, puntuazioak apalxeak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (475etik 500 puntura bitarteko balioak).

- Beste muturrean, ISEK maila “handia” dutenen emaitzak nabarmen hobeak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan. Gainera, gaitasun guztietan, ISEK maila handia dutenen batez besteko puntuazioak askoz hobeak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (533 puntu baino gehiagoko balioak).
- ISEK maila “apala” eta ISEK maila “altua” duten ikasleen emaitzen arteko alderik txikiena, irakurmena gaitasuna gazteleraz edo euskaraz (63 puntu), zientzia (63 puntu) eta matematika (64 puntu) gaitasunetan ematen da, Nafarroako hezkuntza sistemako gaitasunik zuzenenak (ekitatiboenak) izanik. ISEK maila “apala” eta ISEK maila “altua” duten ikasleen emaitzen arteko alderik handiena, berriz, ingelesezko hizkuntza gaitasunean (79 puntu) ematen da, Nafarroako hezkuntza sistemako gaitasun bidegabekoena izanik.



Batez besteko puntuazio eraldatuak, banakako ISEK mailaren arabera



5.6. Ikastetxearen titulartasuna

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %63 irakaskuntza publikokoak dira. Sare publikoko ikasleen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluatutako lau gaitasunetan, ikastetxe itunduetako ikasleen aldean. Hala ere, ikastetxe publikoetako ikasleen batez besteko puntuazioak pixka bat baizik ez dira Nafarroako batez bestekoa baino okerragoak (475etik 500 puntura bitarteko balioak).

Sare itunduaren eta publikoaren arteko aldea handiagoa da irakurmena gazteleraz edo euskaraz gaitasunean (30 puntu), eta horren ondotik, hurrenez hurren, matematika gaitasunean (27 puntu) eta zientzia gaitasunean (20 puntu). Ingeleseko hizkuntza gaitasunean dute alderik txikiena emaitza ertainei dagokienez (18 puntu).




Orri honetan agertzen dira ikasleen ezaugarriak erakusten dituzten grafikoak, non ikasten duten, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, horren arabera. Aztertutako lau ezaugarriek alde estatistikoki esanguratsuak azaltzen dituzte ehunekoaren banaketan, ikasleak non ikasten duen, ikastetxe itunduetan edo publikoetan.


Ikasketak ikastetxe itunduetan ikasten duten ikasleen taldean ikasle errepikatzaile gutxiago dago, modu goiztiarrean eskolatutako ikasle gehiago, bertako ikasle gehiago, banakako ISEK maila “apala” eta “apal-ertaina” duten ikasle gutxiago eta banakako ISEK maila “ertain-handia” eta “handia” duten ikasle gehiago.

Titulartasunaren arabera bi ikasle taldeen ezaugarrietan dauden aldeak kontuan hartu behar dira, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, ebaluatutako gaitasunetan eskuratutako errendimenduan dauden aldeak interpretatzean.


Ikasmaita errepikatzea, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Eskolatzte goiztiarra, ikastetxearen titulartasunaren arabera



Ikaslearen jatorria, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Banakako ISEK maila, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Azkenik, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, horren arabera eskuratutako gaitasun mailetan dauden aldeetan sakondu nahirik, ondotik ematen dira batez besteko puntuazio eraldatuak, ikastetxearen titulartasunaren arabera, banakako lau ISEK mailako bakoitzerako.


- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "apala" dutenendako**:
 - o Irakurmena (gaztelaniaz edo euskaraz), matematika eta zientzia gaitasunetan titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.
 - o Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, ikastetxe publikoetako ikasleek batez besteko puntuazio nabarmen hobea lortzen dute sare itunduetakoek baino.




- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "apal-ertaina" dutenendako**:
 - o Lau gaitasunetan, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.



- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "ertain-handia" dutenendako:**
 - o Ingelesezkotz hizkuntza gaitasunean, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutakotz batez bestekotz puntuazioetan.
 - o Irakurmena (gaztelaniaz edo euskaraz), matematika eta zientzia gaitasunetan, ikastetxe itunduetakotz ikasleek batez bestekotz puntuazio nabarmen hobea lortzen dute sare publikoetakotz baino.
 - o Diferentzia hauen arteko alde handiagoa da matematika eta irakurmena (gaztelaniaz edo euskaraz) gaitasunetan, eta txikiagoa zientzia gaitasunean.





- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "handia" dutenendako:**
 - o Lau gaitasunetan, ikastetxe itunduetakotz ikasleek batez bestekotz puntuazio nabarmen hobea lortzen dute sare publikokotz baino.
 - o Diferentzia hauen arteko alde handiagoa da matematika eta irakurmena (gaztelaniaz edo euskaraz) gaitasunetan, eta txikiagoa ingelesezko hizkuntza eta zientzia gaitasunetan.



5.7. Eskola-absentismoa

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen gehiengo handi batek (%82k) dio hiruhilekoan bi egun oso baino gutxiago huts egin duela eskolan justifikatu gabe. Ikasle horien batez besteko emaitzak nabarmen hobeak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan eta bere batez besteko puntuazioa pixka bat baizik ez da Nafarroako batezbestekoa baino hobe (500dik 525 puntura bitarteko balioak). Beste muturrean daude 4 egun oso edo gehiago huts egin duten ikasleak, %4a, horien batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, eta halaber batez besteko puntuazioak oso apalak, Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak). Bestalde, lau gaitasunetan, batez besteko emaitzak okertzeko joera igartzen da eskolara huts egindako egun kopurua handitu ahalean.




5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo

Irakastorduetatik kanpo ikasten edo etxeko lanetan emandako denborari dagokionez, Nafarroan ikasleen banaketa orekatu samar dago aldagaia azpibanaturik ateratzen diren bost denbora tarteetan (ikus ehunekoen banaketari buruzko grafikoa). Lehen Hezkuntzako 6. mailan hamar ikasletik ia zortzik (%78) diote 3tik 9 ordu bitarte ematen dituztela astean, irakastorduetatik kanpoko etxeko lanetan.


